



**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO  
KONTSEILUAREN 2017KO ABENDUAREN SEKO BILERAREN AKTA**

Presidenteak deituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetzaren egoitzan bertan, 2017ko abenduaren 5eko 12:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

**BILERARA DEITUTAKOAK:**

**PRESIDENTEA**

Jon Darpón Sierra jauna

**PRESIDENTEORDEA:**

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

**KIDEAK:**

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna  
Hernando Lacalle Edeso jauna  
Fátima Ansotegi Elordi andrea

**IDAZKARIA:**

Daniel Salazar Irusta jauna

Bestalde, Kontseiluaren bilerara etorri da, presidenteak gonbidatuta, María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia.

## GAI ZERREDA:

### **LEHENENGOA.- Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren 2017-2010 aldirako plan estrategikoa**

Osakidetzako zuzendari nagusiak Osakidetzaren 2017-2020 aldirako erronka eta proiektu estrategikoen agiria aurkeztu du. Bertan azaltzen dira Osakidetzaren misioa, ikuspena eta balioak eta ezarritako 6 erronkak:

- 1- Pertsona ardatz duen arreta eta osasun-arloko emaitzak
- 2- Osasunaren sustapena eta gaixotasunaren prebentzioa
- 3- Asistentziaren integrazioa eta kronikotasuna
- 4- Profesionalak kudeaketa korporatiboaren kultura eraikitzen
- 5- Kudeaketa aurreratua eta jasangarria, eta osasun-sistemaren modernizazioa
- 6- Berrikuntza eta ikerketa

Halaber, zenbait proiektu definitu dira ezarritako erronketako bakoitzerako.

### **BIGARRENA.- Euskara Plana erakundearen antolakuntza-premiei egokitzea**

Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2013ko abenduaren 3an onartu zuen II. Euskara Plana, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuarekin bat eginda. Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko helburuak, epeak eta jardute-eremuak ezartzen ditu planak. Era berean, aurretik aipatutakoaren arabera, planak zehaztu egiten du noiztik aurrera den nahitaezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea, Osakidetzako lehentasunezko unitateetako hainbat efektibok plazak bete eta horiei dagozkien funtzioak garatu ahal izateko.

II. Euskara Planeko aurreikuspenak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei osasun zerbitzuak eman behar dizkien erakunde bati dagozkio, eta eginkizun horrek, erakunde osoan islaturik, bere egitura eta antolamendu berezitasunak ematen dizkio. Ildo horretatik, Osakidetzaren ezaugarri nagusien artean, plantillaren dinamismoa azpimarratu behar da, giza baliabideen antolamenduari eta banaketari dagokienez. Izan ere, etengabekoa da egokitu, moldatu eta birkokatzekeo prozesua, herritarren asistentzia-behar aldakorrei erantzuteko.

Horregatik, II. Euskara Planak 5.8 atalean zenbait mekanismo aurreikusten ditu Plana antolamendu-beharretara etengabe egokitzeko, behar hauei eman beharreko erantzuna eta planaren bideragarritasuna bateragarriak izan

daitezen. Horretarako, euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari dagokionez, ezinbestekoa da aurreikuspenek eta jarduketek nolabaiteko egonkortasuna eta iraunkortasuna izatea.

Euskera Planaren eguneratzea memoria honi atxikitako derrigortasun datadun efektiboen zerrendarekin lotzen da. Zerrenda horretan, gainera, honakoak adierazten dira: esleitutako derrigortasun-datak, kokalekua azaltzeko behar diren datuak eta unitate horien lehentasun-maila. Eta, tipologia hauek hartzen ditu barne:

- Derrigortasun-datak ezarri, aldatu eta kentzea eta hizkuntza-eskakizunak aldatzea.


Aldaketak horretarako interesa duten zerbitzu-erakundeen ekimenez proposatzen dira, kasurik gehienetan II. Euskara Planak zehazten dituen derrigortasun-datadun lanpostuen ehunekoetara heltzeko, norik bere eragin esparruan.

67/2003 Dekretuan eta Osakidetzaren II. Euskara Planean aurreikusten den bezala, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak txostena egin du kasu guztiei buruz. Horretarako oinarria Euskara Zerbitzuaren txostena izan da, aipatutako arauetako egokitasunaz eta beraietan aurreikusitako hizkuntza-normalizaziorako prozesuan izan beharreko inpaktuari buruzkoa, hain zuzen ere. Proposatzen diren aldaketek efektiboen hizkuntza-eskakizunari edo derrigortasun-datari eraginez gero, beraiei buruzko txostena egin du Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, 13:00an amaitu da bilera, 2017ko abenduaren 5ean.



**Sin.: DANIEL SALAZAR IRUSTA  
IDAZKARIA**



**Sin.: Jon DARPÓN SIERRA  
PRESIDENTEA**